

RUEDA DE PRENSA: Manifestación de Gesto por la Paz

“INDARKERIA GEHIAGORIK EZ! POR UN FUTURO CON MEMORIA”
Bilbao, 28 de enero de 2006

Un año más, la Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria convoca su tradicional manifestación coincidiendo con el Día Internacional de la No violencia - aniversario de la muerte de Gandhi-. Cada año, desde hace casi 20, Gesto por la Paz ha ofrecido a la ciudadanía esta cauce de expresión para reclamar, de forma pública y colectiva, la paz y la defensa de los Derechos Humanos para todas las personas.

El lema de la manifestación de este año es

“INDARKERIA GEHIAGORIK EZ! POR UN FUTURO CON MEMORIA.”

Con ello queremos expresar dos mensajes fundamentales:

- Reafirmar la exigencia del final de la violencia de ETA por inmoral y como causante de la mayor tragedia que ha vivido Euskal Herria en los últimos 40 años. Y, consecuentemente, queremos que esta manifestación sea una muestra de solidaridad con las víctimas que sigue generando esta violencia.
- Expresar la absoluta necesidad de sentar las bases éticas de nuestro futuro. Bases éticas que se fundamenten en la memoria de lo ocurrido. Una memoria que implique el ineludible ejercicio de la solidaridad; una memoria que deslegitime definitivamente la violencia; y una memoria que reclame justicia y democracia para esta sociedad plural.

NO MÁS VIOLENCIA

Es cierto que la violencia se ha reducido en intensidad, pero persiste y con demasiada frecuencia se muestra para hacer patente su fortaleza a través de la amenaza, la extorsión, etc. con objeto de desestabilizar la convivencia social.

Hay quien pudiera creer que la disminución de la intensidad de la actividad de ETA implica una disminución del rechazo social a esa violencia. Nada más lejos de la realidad. La sociedad vasca en su conjunto, con las excepciones por todos conocidas, condena radicalmente y no está dispuesta a aceptar bajo ningún concepto el uso de la violencia con objeto de obtener unas pretendidas contrapartidas políticas. Esto es, mantiene el rechazo a la amenaza silenciosa y a la extorsión –económica y del tipo que sea-, con la misma intensidad con la que ha condenado cada asesinato. Y, en este sentido, exige con la misma firmeza de siempre que ETA desaparezca definitivamente.

Desde Gesto por la Paz reiteramos que **NO MÁS VIOLENCIA** porque la violencia es inadmisibile desde el punto de vista ético y porque en una democracia es absolutamente incompatible con el diálogo y con el ejercicio de la política. En una democracia nadie puede imponer sus objetivos a quienes conformamos esta

sociedad, salvo aquellos proyectos que han sido avalados por la voluntad popular expresada en las urnas.

Somos conscientes de que el ejercicio de esta violencia soterrada incrementa el desamparo y la soledad de quienes son su objetivo, por ello no vamos a claudicar en la denuncia de la vulneración de derechos fundamentales de muchos conciudadanos y vamos a continuar reclamando la atención para que la sociedad arroje a las personas que continúan viviendo las duras consecuencias de la violencia.

POR UN FUTURO CON MEMORIA

La historia más reciente de Euskal Herria está sembrada de momentos muy duros de violencia y de víctimas solas. Reclamamos Memoria. No una memoria para anclarnos en ese pasado, sino una Memoria que nos permita construir las bases sólidas de un futuro digno para esta sociedad.

No podemos caer en la tentación de pasar página, como si no hubiera pasado nada. Sería una perversidad, además de una nueva crueldad especialmente hacia las víctimas. Es necesario construir una MEMORIA COLECTIVA que suponga la recuperación moral de la dignidad de nuestra propia sociedad, en la que compartamos todos y todas, la certeza de la absoluta inmoralidad que es el terrorismo, su falta de legitimidad política y el convencimiento de la necesaria solidaridad hacia quienes más directamente lo han sufrido.

Consideramos prioritario que la ciudadanía asuma la necesidad de reconocer que las víctimas de la violencia son aquellos vecinos nuestros que han recibido directamente un ataque que iba dirigido contra toda la sociedad. ETA no elige a sus objetivos por ser quienes son, sino por lo que representan para la sociedad en la que viven. La Memoria que reclamamos debe **reconocer** el injustificable daño que el terror ha causado a las víctimas y mostrar un inmenso respeto por el sufrimiento engendrado. Y, también, debe reconocer el dolor que la propia sociedad ha ocasionado a las víctimas al darles la espalda durante años, buscando inmorales y falsas explicaciones.

La memoria de las víctimas exige que ningún proyecto político suponga una afrenta para su dolor y su sufrimiento. Esto significa que todo proyecto político debe compartir la condena moral hacia la agresión producida y debe incluir expresamente la deslegitimación política de la violencia. Es decir, debe reflejar que el daño infligido a las víctimas, ni tiene, ni puede llegar a tener ninguna justificación. Debemos cerrar la puerta de la utilización de la violencia como arma política en Euskadi. Y esa puerta debe quedar cerrada de tal manera que nadie vea la posibilidad de una vuelta atrás. Entendemos que la clave para lograrlo es que se constate la deslegitimación, tanto social como política, de la violencia: la convicción absoluta de que el uso de la violencia no es justificable. Y esa **deslegitimación política y social de la violencia** supone:

- Entender que el apoyo o el ejercicio de la violencia implica automáticamente la autoexclusión del debate político, ya que es obvio que violencia y política son conceptos antagónicos.

- Exigir una desvinculación absoluta de las decisiones políticas y la utilización de la violencia porque no se puede permitir ninguna concesión política al terror. Para asegurar que no haya posibilidad de una vuelta atrás sólo vale la victoria de la democracia. Volvemos a insistir en que, en estos momentos, la desaparición de la violencia depende de ETA y de quienes siguen apoyándola.
- Defender el respeto a los Derechos Humanos. La deslegitimación de la violencia también implica que la lucha contra el terrorismo se realice desde el respeto a los Derechos Humanos y con una ecuaníme aplicación de las normas que rigen la convivencia democrática de nuestro Estado de Derecho, siendo especialmente cuidadosos en la aplicación de medidas que afectan a derechos fundamentales y evitando recurrir a medidas excepcionales en una democracia que, en ocasiones, torpemente se aplican con regularidad.

Esta memoria nos permitirá diseñar un futuro sólidamente basado en unos valores de paz, de defensa de los Derechos Humanos para todas las personas, de consideración de la pluralidad como un valor enriquecedor y de reconocimiento del diálogo como único medio para defender formas de convivencia válidas.

Durante estos años, la sociedad ha jugado un papel fundamental en la concienciación sobre el necesario rechazo a la violencia. Aunque nuestra memoria también contiene tristes años de silencios y falsas explicaciones, en los últimos tiempos se han producido múltiples demostraciones públicas del compromiso de la ciudadanía vasca en contra de la violencia y que, poco a poco, se han extendido por la inmensa mayoría de la sociedad. Durante mucho tiempo hemos ocupado la calle para expresar el rechazo y la indignación que nos causaban aquellos asesinatos que se producían en nuestro nombre.

La reacción social ha servido para debilitar el apoyo a la violencia. También debemos tener memoria para ser conscientes del papel que ha jugado y que juega la propia ciudadanía. A esta ciudadanía, a cada hombre y mujer de esta comunidad, invitamos a que se sume a la manifestación que Gesto por la Paz va a celebrar el sábado, 28 de enero. Un año más, Gesto por la Paz es cauce de expresión de una sociedad viva que quiere luchar por un futuro en paz, justo, libre y solidario hasta el infinito con quienes más han sufrido.

Indarkeria gehiagorik ez! Por un futuro con memoria.

El sábado, 28 de enero, a las 17'30 h. desde la Plaza del Sagrado Corazón en Bilbao partirá esta manifestación. Os esperamos.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA
20 de enero de 2006



Bakearen aldeko Koordinakundea - Gesto por la Paz en Manifestazioa Prentsaurrea

"INDARKERIA GEHIAGORIK EZ! POR UN FUTURO CON MEMORIA"
Bilbao, 2006ko urtarrilaren 28a

Beste behin ere, Bakearen aldeko Koordinakundea – Gesto por la Pazek ohiko manifestazioa antolatu du, Indarkeriarik Ez-eko Nazioarteko Eguna eta Gandhiren heriotzaren urteurrena baliatuz. Urtero Gesto por la Pazek pertsona guztientzako Giza Eskubideak eta bakea aldarrikatzeko bidea eskeini du gizartearentzat.

Aurtengo izenburua honakoa da:

"INDARKERIA GEHIAGORIK EZ! POR UN FUTURO CON MEMORIA."

Hitz hauekin zera adierazi nahi dugu:

- Euskal Herrian azken 40 urteotan bizi izan dugun trajediarik handienetakoaren eragile nagusia den ETaren indarkeria amaitu dadila exijitu. Eta, orobat, indarkeria honek sortzen jarraitzen dituen biktimenganako elkartasuna berretsi ere bai.
- Gure etorkizuneko hastapen etikoak ezarri beharra. Hastapenok, gertatukoaren oroimena izan behar dute oinarri. Oroimen honek elkartasunera garamatza eta indarkeria guztiz eta betiko deslejitimatuko du; azken finean, oroimen honek gizarte anitz honentzat justizia eta demokrazia eskatuko du.

Indarkeria gehiagorik ez

Indarkeria lehen bezain gogorra ez bada ere, bere horretan dirau, mehatxu, estortsio eta bonben bidez. Baina euskal gizarteak, betikoez salbu, gaitzesten jarraitzen du eta ez du inondik ere onartuko indarkeriaren erabilkeria balizko helburu politikoen truke. Alegia, hilketak arbuiatu ditugun bezala, mehatxuak eta estortsioak ere salatzen eta gaitzesten jarraituko dugu. Halaber, ETaren behin betiko desagertzea exijitzen dugu.

INDARKERIA GEHIAGORIK EZ diogu, berau etikoki onartezina eta demokrazian hitzarekin eta politikarekin erabat bateraezina delako. Demokrazian urnek berek agintzen dute zeinek ezarriko duen politika, ez bestek.

Bakearen aldeko Koordinakundean badakigu, ondo jakin ere, isilpeko indarkeria honek babesgabe eta bakardadea dakarkiela jasaten dutenei. Hau dela eta, gizarteari deitzen jarraituko dugu pertsona hauenganako elkartasuna adieraz dezan.

Por un futuro con memoria. Ahaztu ezinik

Arestiko historia indarkeriaz eta bakardade gorrian dauden biktimez josita dago. Oroimena eskatu beharrean gaude. Ez lehenaldiari eusteko oroimena, baizik eta etorkizun duina eraikitzeke oinarri sendoak izan ditzagun.

Ezin aurrepausuak eman atzean oinatz minduak ahaztuta. Jukutria ez ezik, ankerra ere izango litzateke biktimenzat. Geure gizartearen duintasunaren berreskuratze morala ekarriko duen oroimena landu behar dugu ezinbestean. Hartara, terrorismoaren gaitzespena, bere lejitimitate politikorik eza eta biktimenganako elkartasuna partituko ditugu guztion artean.

Aldi berean, erabat beharrezkotzat jotzen dugu, gizarte osoaren kontra zuzendutako erasoaren biktimak gure auzokoak direla denok onartu dezagun. ETAk pertsona akabatu ohi du bizi den gizartean irudikatzen duenagatik. Eskatzen dugun oroimenak, terrorismoak biktimengan sortutako bidegabeko oinazea denok onartzera bultzatu behar gaitu. Bigarrenik, gizarteak berak biktimei bizkar emanda, sasi-azalpen txatxuak agertuz, eginiko oinazea ere errekonozitzera behartu.

Gure ustez, egitasmo politiko orok, biktimei egindako erasoaren gaitzespena eta indarkeriaren deslejitimazio politikoa ekarri behar ditu bere baitan. Esan nahi da, indarkeriak emandako minak ez daukala inolako aitzakiarik, ezta justifikaziorik ere. Euskadin tresna politikotzat erabili da indarkeria sarri; ate hori erabat itxita egon behar da, horretan atzera pausorik inork eman ez dezan. Indarkeria deslejitimatzea, beraz, giltza da bakezko etorkizunean: indarkeria erabiltzeak ez duela inola ere zergatirik. Deslejitimazio politiko eta sozial horrek zera dakar berekin:

- Indarkeriaren bultzatzailea edo erabiltzailea elkarrizketa politikotik at uzten duela, indarkeria eta politika kontrako kontzeptuak baitira.
- Indarkeriaren amaiera ezin dela inondik ere erabaki politikoeekin nahastu, demokraziaren garaipena baino ezin baita nahi. Atzera pausorik inork eman ez dezan, terrorismoari ezin dakioko eskeintza politikorik eman.
- Giza Eskubideak ere errespetatu behar direla. Indarkeria deslejitimatzeak terrorismoaren kontrako burrukan Giza Eskubideak ez urratzea ere badakar ekarri. Zuzenbide Estatu honetan, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten legeak egoki aplikatu behar dira, oinarritzko eskubideak bereziki zainduz. Batzuetan, salbuespenezko neurriak ohiko bihurtu dira eta hori ez da bidezkoa.

Oroimen honen bidez, beraz, bake-baloreak, ororentzat Giza Eskubideen defentsa, aniztasuna aberasten gaituela sinetsita, eta benetako elkarbizitza babesteko bidea elkarrizketa delakoan, **etorkizun sendoa eraiki** ahal izango dugu.

Azkenaldi honetan gizarteak, indarkeria arbuiauz, sekulako zeregina burutu du. Isilune tristez eta sasi-azalpenez betetako garaiak joan ziren eta urteotan, indarkeriaren kontrako jarrerak eta biktimenganako elkartasun erakusteak ugari izan dira.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

Gizartearen ekitaldi eta jokaera hauek indarkeria ahuldu dute. Beraz, herritar-hiritarrok hartutako betebeharrak hau ere kontuan hartu behar da, ezin ahaztu, eta oroimen horretan gordeko dugu. Horiei guztiei, gure gizarteko kide guztiei, datorren larunbatean, hilak 28, Gesto por la Paz-ek antolatutako manifestaldira joateko gonbitea egiten diegu. Beste behin ere, etorkizun bidezkoa, bakezkoa, askea eta gehien sufritu dutenekin elkartasunezkoaren alde bizi den gizarte baten adierazpidea izan nahi du Gestoren ekitaldi honek.

Indarkeria gehiagorik ez! Por un futuro con memoria.

Urtarrilaren 28an, larunbata, arratsaldeko 5:30etan, Bilboko Jesus Bihotzeko Plazatik aterako gara. Zuen zain gagoz.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

20 de enero de 2006



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>